



Jardunaldietarako **lekuak mugatuak dira**, beraz,
soilik baieztapena jasotzen dutenek izango dute etortzeko aukera.
Jardunaldiren batean **parte hartzeko**:

***Las plazas a los talleres son limitadas***, *por lo que solo podrán acudir a los mismos aquellos que reciban la confirmación. Para* ***confirmar tu asistencia*** *a alguna de las sesiones:*

**Ahal den neurrian Lehiberriko goizetako kurtsoetara norberak ordenagailu portatila ekartzea eskatzen da.**

*Se ruega que cada participante traiga su ordenador portátil a los cursos de las mañanas en Lehiberri.*

**DOHAINIK DIRA**
***SON GRATUITOS***

**www.lehiberri.eus**
**lehiberri@tolosaldea.eus**
**943 65 45 01**

## EZAGUTU LEHIBERRI ZENTROA
## CONOCE EL CENTRO LEHIBERRI

- 8 BILERA GELA.
- 100 PERTSONENTZAKO AUDITORIOA.
- 2 FORMAKUNTZA GELA.
- IKT GELA.
- ERAKUSKETA ARETOA.
- ENPRESEN ARTEKO 3 LABORATEGI.
- ENPRESEN HAZITEGIA.
- COWORKING EREMUA.
- ENPRESA BERRIENTZAT 7 HAZTEGI.
- *8 SALAS DE REUNIÓN.*
- *AUDITORIO PARA 100 PERSONAS.*
- *2 AULAS DE FORMACIÓN.*
- *1 AULA TIC.*
- *1 SALA DE EXPOSICIONES.*
- *3 LABORATORIOS EMPRESARIALES.*
- *SEMILLERO DE EMPRESAS.*
- *ESPACIO COWORKING.*
- *7 VIVEROS PARA NUEVAS EMPRESAS.*



+ INFO
**943 65 45 01**
**lehiberri@tolosaldea.eus**

lehiberri
Tolosaldeko Lehiakortasun eta Berrikuntzarako Foroa

EUSKO JAURLARITZA — GOBIERNO VASCO
EKONOMIAREN GARAPEN ETA AZPIEGITURA SAILA
DEPARTAMENTO DE DESARROLLO ECONÓMICO E INFRAESTRUCTURAS

spri — ENPRESA DIGITALA

TOLOSALDEA GARATZEN



**20 21 22 23 24 25 26**
**AZAROA | *NOVIEMBRE***
# 2017

# INFORMAZIO ETA KOMUNIKAZIO TEKNOLOGIEN ASTEA TOLOSALDEAN

# *SEMANA DE LAS TECNOLOGÍAS DE LA INFORMACIÓN Y COMUNICACIÓN EN TOLOSALDEA*

**9** EDIZIOA
*EDICIÓN*
**TIC ASTEA**

# 2017

# IKT ASTEA | *SEMANA DE LAS* TIC

## GOIZEZ | *MAÑANAS* » 09:00 - 13:00 » LEHIBERRI ZENTROA
Apattaerreka Industrialdea, Apatta 1 » [ BUS: TOLOSA-APATTA ERREKA ]



20

**20 ASTELEHENA**

**ZER DA INDUSTRIA 4.0? OINARRIZKO PRINTZIPIOAK**

Industria 4.0 hitzak produkzio prozesuetan elektronika, informazio eta komunikazioko teknologiak (EIKTak) integratzeari egiten dio erreferentzia, automatizazioa eta eraginkortasun mailak hobetzen baitituzte eta, aldi berean, aukera berriak irekitzen. Sarrerako jardunaldi honetan, Industria 4.0ren kontzeptua erakutsiko da, baita erreferentziazko teknologia nagusiak zeintzuk diren. Teknologia bakoitzerako, aplikazioko adibide erreal bat azalduko da.

***LUNES 20***

***¿QUÉ ES LA INDUSTRIA 4.0? PRINCIPIOS FUNDAMENTALES***

*El término Industria 4.0 hace referencia a la integración en los procesos productivos de tecnologías de la electrónica, la información y las comunicaciones (TEICs) que mejoran los niveles de automatización y eficacia, al mismo tiempo que abren nuevas posibilidades. En esta jornada introductoria se mostrará el concepto de Industria 4.0 y cuáles son las principales tecnologías de referencia. Para cada tecnología se expondrá un ejemplo real de aplicación.*

21

**21 ASTEARTEA**

**ZIBERSEGURTASUNA: NOLA BABESTU NIRE ENPRESA SEGURTASUN INTZIDENTEEN AURREAN**

Zibersegurtasuna kezka iturri izaten hasi da ETE askorentzat. Jardunaldi honetan egungo arriskuak zein diren eta geure burua babesteko martxan jar ditzakegun neurriak aztertuko ditugu.

***MARTES 21***

***CIBERSEGURIDAD: CÓMO PROTEGER MI EMPRESA FRENTE A INCIDENTES DE SEGURIDAD***

*La ciberseguridad comienza a ser un elemento de preocupación para muchas PYMEs. En esta jornada analizaremos cuales son los riesgos actuales y las medidas que podemos poner en marcha para protegernos.*

22

**22 ASTEAZKENA**

**ENPRESARENTZAKO “HODEIKO” ZERBITZUAK**

Gero eta gehiago hodeia sendotzen ari da teknologia kontsumitzen duten enpresentzako aukera gisa, zerbitzuak ez baitu eskatzen azpiegituretan kopuru izugarriak inbertitzea, eta segurua eta erabilerraza da edozein tokitatik. Hodeiak negozio prozesuak albait hoberen baliatzeko modua ematen du, barneko funtzionamendu egokia errazten du, enpresari balioa gehitzen dio, balioa sortzen eta berrikuntzan zentratzen delako; hasieratik eta mantentze-lanean kostuak murrizten ditu, aplikazio eta zerbitzu berriak bizkorrago jartzen ditu martxan, eta baditu enpresaren lehiakotasunerako eta produktibitaterako kontuan hartu beharreko beste onura ugari. Jardunaldi honetan, askotariko erremintak baliatuz, erakutsiko dugu hodeiak eskaintzen dituen abantaila nagusiak zeintzuk diren.

***MIÉRCOLES 22***

***SERVICIOS “EN LA NUBE” PARA LA EMPRESA***

*Cada vez más la nube se va afianzando como una alternativa para las empresas en el consumo de tecnología como servicio sin necesidad de inversiones millonarias en infraestructuras, de forma segura y accesible desde cualquier lugar. La nube permite optimizar los procesos de negocio, facilita el correcto funcionamiento interno, aporta valor a la empresa porque posibilita centrarse en generar valor e innovar, reduce costes desde el principio hasta su mantenimiento, acelera la puesta en marcha de nuevas aplicaciones y servicios, y un sinfín de beneficios que deben ser tenidos en cuenta para incrementar la competitividad y productividad de su empresa. En esta jornada mostraremos mediante la utilizacion de diferentes herramientas cuáles son los principales beneficios que ofrece la nube.*

23

**23 OSTEGUNA**

**ERREMINTA DIGITALEZ PRODUKZIOA HOBETU**

“Kontua ez da zenbat denbora duzun, nola baliatzen duzun baizik”. Ikastaro honek antolamendu eta kudeaketa pertsonaleko gaitasunak hartzeko modua emango dizu, metodologiei esker, teknologia zein Interneten erabilera egokiaz lagunduta.

***JUEVES 23***

***MEJORA PRODUCTIVA CON HERRAMIENTAS DIGITALES***

*“No es cuanto tiempo tienes sino como lo aprovechas”. Este curso te permitirá adquirir habilidades de organización y gestión personal gracias a metodologías acompañadas por un buen uso de la tecnología e Internet.*

24

**24 OSTIRALA**

**DATUEN BABESA**

Datuak dira gure enpresen aktibo garrantzitsuenetako bat. Jardunaldi honetan, kudeatzen dugun informazioa era egokian zaintzeko modua ikusiko dugu, lapurtuak, aldatuak edo suntsituak izan ez daitezen. Halaber, datu pertsonalen babes gaietan kontuan hartu beharreko lege alderdiak aztertuko ditugu.

***VIERNES 24***

***PROTECCION DE DATOS***

*Los datos son uno de los activos más importantes en nuestras empresas. En esta jornada veremos cómo podemos proteger de forma adecuada la información que gestionamos frente al robo, modificación o destrucción. Analizaremos también los aspectos legales a tener en cuenta en materia de protección de datos personales.*

## EGUERDIZ | *MEDIODÍAS* » 14:15 - 16:15 » ORIABURU ERAIKINA
Pedro de Tolosa pasealekua 2 [ TOLOSA HIRIGUNEA | *CENTRO DE TOLOSA* ]



20 21 22 23 24

**20-21-22-23-24 ASTE GUZTIAN ZEHAR**

**LEARN BY DOING**

Learn By Doingen bitartez, gure saltokien mesedetan teknologia berriei errentagarritasuna ateratzen ikasiko dugu.

***20-21-22-23-24 DURANTE TODA LA SEMANA***

***LEARN BY DOING***

*Mediante la metodologíoa Learn By Doing aprenderemos a sacar rentabilidad a las nuevas tecnologías en beneficio de nuestros comercios.*

## ARRATSALDEZ | *TARDES* » 18:00 - 20:00 » ORIABURU ERAIKINA
Pedro de Tolosa pasealekua 2 [ TOLOSA HIRIGUNEA | *CENTRO DE TOLOSA* ]



20

**20 ASTELEHENA**

**TEKNOLOGIEK EGUNEROKO EGINKIZUNETAN DUTEN ERAGINA. ROBOTAK ETA ADIMEN ARTIFIZIALA: ETSAI ALA LAGUN?**

Robot batzuek lanpostuak desagerrarazten dituzte; beste batzuek, berriz, ibiltzeko modua ematen digute. Gure alde daude ala gure etsaiak dira? Tailer honetan, egungo teknologiaren paradigma aztertuko dugu, Robotei eta Adimen Artifizialeko sistemei dagokienez.

***LUNES 20***

***CÓMO IMPACTA LA TECNOLOGÍA EN LAS TAREAS COTIDIANAS. ROBOTS INTELIGENCIA ARTIFICIAL: ¿AMIGOS O ENEMIGOS?***

*Algunos robots hacen que desaparezcan puestos de trabajo; otros, nos permiten caminar. ¿Están de nuestra parte o son nuestros enemigos? En este taller repasaremos al paradigma de la tecnología actual en cuanto a Robots y sistemas de Inteligencia Artificial.*

21

**21 ASTEARTEA**

**LINKEDIN LANA BILATZEKO BITARTEKO**

Linkedin sendotu egin da ia mundu osoan hedatutako sare sozial profesional gisa. Linkedinen gure curriculuma izateko aukera ez ezik, gure ikusgaitasuna hobe dezakegu haren bidez, kontaktu berriak izan, ezagutzak elkartrukatu, eta aukera berriak deskubritu. Ekitaldi honetan, linkedin gure alde nola erabili azalduko dugu.

***MARTES 21***

***LINKEDIN COMO HERRAMIENTA DE BÚSQUEDA DE TRABAJO***

*Linkedin se ha consolidado como la red social profesional con mayor presencia en practicamente todo el mundo. Además de poder tener en Linkedin nuestro Curriculum, podemos mejorar nuestra visibilidad, establecer nuevos contactos, intercambiar conocimientos y descubrir nuevas oportunidades. En este evento explicaremos cómo podemos utilizar linkedin a nivel personal.*

22

**22 ASTEAZKENA**

**EGUNEROKO TEKNOLOGIA: AZKEN GAGDET HARRIGARRIAK!**

Teknologia gero eta lasterrago aurreratzen da. Duela 5-10 urte ezinezkoak iruditzen zitzaizkigun gauzak orain edonoren eskueran daude. Ikusiko ditugu etxean, pertsonalki edo eta aisialdirako egun gure irismenean ditugun gailuak zeintzuk diren. Gainera, 2 urte eskasean eduki ahal izango ditugun gailu berriak erakutsiko ditugu.

***MIÉRCOLES 22***

***TECNOLOGÍA DEL DÍA A DÍA: ¡ÚLTIMOS GADGETS SORPRENDENTES!***

*La tecnología avanza cada vez con más velocidad. Cosas que hace 5 o 10 años nos parecían imposible ahora son una realidad al alcance de cualquiera. Veremos qué dispositivos están hoy en día a nuestro alcance para su uso doméstico, personal o de ocio. También mostraremos lo nuevos dispositivos que podremos tener en apenas 2 años.*

23

**23 OSTEGUNA**

**SARE SOZIALEKIN ETA NERABEEKIN KONTUAN HARTU BEHARREKO ARRISKUAK ETA ZUHURTASUN NEURRIAK**

Internetez nabigatzea zoragarria da, baina baditu arriskuak. Egungo egunean, gure gazteek ahotan hartu dute “Interneten ez bazaude, ez zera inor” errealitatearen adierazpena. Zaila da gure gazteak Internet erabiltzen hezi, akonpainatu eta kontrolatzea, baina hori ez da aitzakia hartu behar dituzten arriskuak, neurriak eta zuhurtasun aurreikuspenak haiei ez esplikatzeko. Jardunaldi honetan, bizi garen errealitatea eta gazteak Interneten gaizki hezteak izan ditzakeen ondorioak erakutsiko ditugu. “Ospe digital” txarrak baldintzatu egin dezake edozein gazteren etorkizun profesionala, edozein aukeraketa prozesutan kontuan hartzen den balioa baita.

***JUEVES 23***

***RIESGOS Y PRECAUCIONES QUE HAY QUE TOMAR CON LAS RRSS Y LOS ADOLESCENTES***

*Navegar por internet es estupendo pero tiene riesgos. Hoy en día nuestros jóvenes verbalizan el hecho de que “si no estás en Internet no eres nadie”. Resulta difícil poder educar, acompañar y controlar a nuestros jóvenes en el uso de Internet pero esto no debe ser excusa para que les expliquemos los riesgos, medidas y precauciones que deben tomar. En esta jornada mostraremos la realidad en la que vivimos y las consecuencias que puede acarrear una mala educacion de los jóvenes en el uso de internet. Una mala “Reputación digital” puede condicionar el futuro profesional de cualquier joven porque es un valor que ya se tiene en cuenta en cualquier proceso de selección.*